

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

15/2020 Mozioa, otsailaren 26koa, Arabako Mugikortasunaren II. Plana izango denaren garapenari buruz, eta trenbidearen inguruko gaiak tratatzen dituzten Arabako Mugikortasunaren Agintaritzaren bileretan Renfe eta Euskotren inkorporatzeko proposamenari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

15/2020 Mozioa, otsailaren 26koa, Arabako Mugikortasunaren II. Plana izango denaren garapenari buruz, eta trenbidearen inguruko gaiak tratatzen dituzten Arabako Mugikortasunaren Agintaritzaren bileretan Renfe eta Euskotren inkorporatzeko proposamenari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote koordinatu dadila Lurralde Historikoan garraiobideak martxan dituzten administrazio guztiekin, Arabako Mugikortasunaren II. Plana izango dena garatzeko orduan.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, lankidetzaz hori sustatze aldera, Arabako Mugikortasunaren Agintaritzara eraman dezatela Renfe eta Euskotren trenbidearen inguruko gaiak tratatzen dituzten bileretara inkorporatzeko proposamena.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 26a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA